

## 2007KO AZAROAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

**DEIALDIA: LEHENA**  
**HASIERA ORDUA: ILUNTZEKO 6:05,**  
**AMAIERA ORDUA: ILUNTZEKO 8.35**

**BERTARATUAK: Jesús Maria Fullaondo, Alkatea, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga, Leixuri Arrizabalaga, Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka Iñaki Aginaga eta Gotzon Arrieta.**

Udaletxeko batzar aretoan, osoko bilkura bildu da, ohiko osoko bilkuran, aipatutako zinegotziak bertaratuta. Bilkura hasi ondoren, idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar den gutxieneko kopurua izatea ikusi ondoren, gai zerrendan agertutako gaietara buruz hitz egin dute:

### **1. Arteko bilkuraren aktaren onarpena.**

Deialdiaz batera emandako arteko osoko bilkuraren aktaren kopia kontuan hartuta, Jose Maria Markaidak eskatu du aldaketa batzuk egiteko. Guztiok ados daude proposatutakoarekin. Idazkariak ontzat eman du eta aldatu egin da akta.

Behin aldaketak eginda, akta aho batez onartu da.

### **2. Alkateak emandako Dekretuak jakinaraztea**

Deitze Erkorekak galdetu du zertan datza Bake Epategiko dirulaguntza eskatzeko dekretua. Idazkariak azaldu du BOPVn agertu dela akordio bat dirulaguntzak emateko eta eskatu dela kalefazio sistema aldatzeko dirulaguntza.

### **3. Gizarte ekintzaren txostenaren onarpena**

Aho batez onartu da.

### **4. Haurreskolako ordezkaria eta ordezkoa izendapena**

Jesús Maria Fullaondok proposatu du alkatea bera ordezkari eta kultur zinegotzia ordezko izatea.

ANV-EAEkoek eta EAKoek ezetz esan dute.

EAJ-PNVkoek baietz.

Gehiengo osoa beharrezkoa denez, proposatutakoa ez da onartu.

### **5. Premiazko gaiak**

EAE-ANV taldeak premiazko gai hauek aurkeztu ditu:

#### **5.1- "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa duen banderolari buruzkoa.**

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“1.- Espainiar legeriak berak diotenaren arabera, presoek euren etxetik gertuen dauden kartzeletan beteko dutela zigorra arautzen du. Horrexegatik, euskal preso politikoei ere artikulu bera aplika diezaietela aldarrikatzeko EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA dioen banderoloa udaletxeko balkoian eskegita egotea eskatzen dugu.

2.- Dispertsioa, gaineratutako zigorra eta mendekuaren ondorio zuzena besterik ez da; horrekin bukatzeko modua EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIKO kartzeletara ekartzea da eta Gatikako udalak pertsona guztien eskubideak defendatu eta aldarrikatzeko, baita presoena ere, banderoloa udaletxeko balkoian eskegitzea eskatzen dugu.

3.- Dispertsioa senideak zigortzeko modua da; astebururo presoek senitarteko, lagun eta hurbilekoek milaka kilometro egin behar izaten dituzte senide presoekin ordu bete edo gutxiago egoteko. Presoen senideek astebururo euren bizia arriskuan jarri beharrik izan ez dezaten EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRATzea aldarrikatuko dugu Gatikatik ere gure udaletxeko balkoian banderoloa eskegiz.

4.- Presoak Espainiar eta Frantziar estatuetan sakabanatuta egoteak gastu ikaragarria suposatzen du euren familia eta lagunentzako; kotxea, gasolina, autopistak, gaua pasatzea, janaria, ... Dispertsioa presoak eta euren familiak ekonomikoki zigortzeko erabiltzen dutela salatu eta horrekin bukatzeko EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ekartzea aldarrikatuko dugu udaletxeko balkoitik.

5.- Honezkero, hainbat dira preso dauden senide edo lagunak bisitatzera joan eta bidean istripuak izan dituztenak. Ezin dugu onartu euren legea betetzen ez dutelako euskal preso politikoen senideek errepideetan bizia galtzea. Horregatik, Gatikako udaletxeko balkoian EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA banderoloa eskegitzea eskatzen dugu.

Aipatu ditugun bost arrazoi hauetan oinarrituta Gatikako udaletxeko balkoian EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA aldarrikatzen duen banderoloa osoko bilkura honetan onartu eta hurrengo egunean bertan eskegitzea eskatzen dugu”

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak ez datoz bat honekin. Jesús Maria Fullaondok esan du udala ez dela leku aproposena honetaz mintzatzeko.

### 5.2- Gatikako jai batzordeari buruzko gaia.

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“1.- Jai Batzordeak fakturak urtero entregatzen ditu udaletxean urte amaieran. Horrexegatik, Maria Jesusek esandakoa gezurra dela diogu. Izan ere, EAJ-PNVk Jai Batzordeak alkatearekin faktura guztiak entregatzeko geratuta zegoen egunaren bezperan, banatu zuen bere aldizkaria. Jakinda, faktura guztiak egon bazeudela eta hurrengo egunean bertan entregatuko eta azalduko zitzaizkiola udaletxean bilera batean alkateari. Izan ere, Jai Batzordeak, astebete lehenagotik zeukan hitzordua eskatuta alkatearekin. Bilera horretan, aurtengo gastu guztien fakturak eta diru sarrerek eman zitzaizkion alkateari.

Honakoak dira aurtengo diru sarrera eta gastuen datuak:

- GASTUAK: 68.399,11€
- DIRU-SARRERAK: 64.160,08 (udalak emandako diru-laguntza 42.000€)
- DEFIZITA: 4239,03€
  - Udalak ordaindutakoa: 3.720,02
  - Txosnako kajatik ordaindutakoa: 519,01€ (bankuan ingresatu aurretik, kajatik ordaindutakoa)

Informazio guztia, udaletxean dago nahi duenak ikusi dezan.

2.- Bestalde, orain arte ere faktura guztiak entregatu eta diru sarreren berri eman den arren, Jai Batzordeak azken urteotako mugimendu eta diru sarrerak zeintzuk izan diren zalantzarik egon ez dadin La Caixari daukan kontu korronteko estrakto bat egitea (zabaldu zanetik gaur arte) eskatu dio. Hori ere, udaletxean dago nahi duenak ikusi dezan.

3.- Jai batzordea ez da elkarte pribatu bat eta beraz, Gatikako udaleko batzorde bat gehiago dela esan genezake. Bertan, borondatez eta trukean ezer jaso gabe egiten dabe lan herritar talde batek. Hori dela eta, inork ezin du talde horretako partaideen dimisiorik eskatu pertsona horiek inon ez baitaude erregistratuta eta inolako kargurik ez baitaude batzorde horretan. Gainera, batzorde horren erantzule bakarra Gatikako udala da.

4.- Gure herriko jaiak sustatu eta bultzatzearen alde lanean diharduen talde hau kontu politikoekin nahastea gustu txarrekoa dela deritzogu. Gainera, aitortu beharra dago lan itzela egiten dutela jaiak herritar guztien gustukoak izan daitezen eta ahalegin hori benetan eskertzekoa da.

Beraz, aipatu ditugun arrazoi horietan oinarrituta, Gatikako udalari gatazka honetan esku hartu eta kontuak argitu ditzala eskatzen dugu. Izan ere, Gatikako udalak berak dauka kontu hauek argitzeko informazio guztia. Horretarako, udalak aste beteko epen

esku orri berezia argitaratu eta buzoneatu dezala eskatzen dugu. Honakoa izango da herritarren etxeetara bidaliko den gutuna:

## GATIKAKO JAI BATZORDEA

Azkenaldian, EAJ-PNVren GATIKA-BERRI aldizkariaren bitartez, herrian zabaldu diren zurrumuruak isildu asmoz; Gatikako udalak jai batzordearen inguruan honako azalpenak eman nahi ditu:

- 1.- Jai batzordea ez da elkarte pribatu bat; bai, ordea, udaletxeko batzorde bat.
- 2.- Jai Batzordea herriko jendeak osatzen du eta antolatzen ibiltzen diren pertsonak ez dabe ezer hartzen trukean behar hori egiteagatik. Hori bai, laguntzen ibiltzen diren guztiekaz (turnoak egiten dabezenak, gauzek montetan lagunten dabenekaz, ferire ganadu ekarten dabenakaz, ...) bazkari bat egiten da San Markoatan.
- 3.- Gatikako jai batzordeak urtero jasotzen du diru-laguntza udaletik herriko jaiak antolatzeko eta urtero aurkezten ditu bere gastuak. Horrez gain, diru sarreraren barri ere ematen du.

Aurtengo gastu eta irabaziak ere udaletxean daude honezkero eta nahi duenak udaletxera etorri, eskatu eta ikusi ahal ditu. Aipatu behar dugu, gainera, gastuak diru sarrerak baino gehiago izan direla aurtan ere eta zorrik ez uzteko udalak ordaindu duela falta zena.

Azkenik, jai batzordea osatzen duten pertsonak kontuak argi erakutsi dizkigutela eta jaiak antolatzen egiten daben lana eskertzekoa dela esan behar dugu.

## LA COMISIÓN DE FIESTAS

Ante los rumores vertidos sobre la comisión de fiestas los últimos días en la revista Gatika Berri de EAJ-PNV, el Ayuntamiento de Gatika cree necesario tomar cartas en el asunto para dar las aclaraciones oportunas:

1.- La Comisión de Fiestas no es una asociación privada sino una comisión más del Ayuntamiento.

2.- Dicha comisión la conforman personas voluntarias del pueblo, sin recibir nada a cambio. Además de las personas que organizan, muchas otras ayudan haciendo turnos, en el montaje, llevando el ganado para la feria, ... En agradecimiento, todas ellas reciben una comida en San Marcos.

3.- La Comisión de Fiestas recibe anualmente una subvención por parte del Ayuntamiento para organizar y preparar las fiestas patronales. Al finalizar el año la Comisión de Fiestas presenta anualmente todas las facturas, así como los ingresos de dinero.

Las facturas e ingresos de las fiestas del 2007 han sido ya entregados en el Ayuntamiento y están a disposición de cualquier persona interesada en verlas. Además, debemos añadir que este año como en anteriores los gastos han superado los ingresos y el pequeño déficit ha sido solventado por el propio Ayuntamiento.

Para finalizar, queremos aclarar que las personas que conforman la Comisión de Fiestas han presentado sus cuentas con total claridad y que es de agradecer la labor que realizan.”

Idazkariak esan du “bandoak” egiteko eskuduntza alkatearena dela. Deitze Erkorekak esan du bandoa ez bada, informazio-orriaren bidez egiteko.

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak ez datoz bat honekin, haien ustez premiazkoa ez baita.

### 5.3- Web orrialdean aktak publikatzeko proposamena.

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“Informazio-batzorde, osoko bilkura eta ez ohikoetan herriari zuzenean eragiten dizkioten gaietaz aritzen gara udaletxean. Horretarako, [www.gatika.net](http://www.gatika.net) gure web orrian atal berezi bat sortzea proposatzen dugu. Atal berezi horretan bilkuretako aktak eskegiko dira pdf formatoan, edozein herritarrek irakurri ditzan. Agintaldi honetako akta guztiak sartuko dira; hau da ekainetik aurrerakoak.

Gure web orriaren mantentze lanak egiteko egun daukagun informatikariaren kontratua berrikusi beharko da eta azertu lan horretaz arduratu daitekeen, ordu gehiago beharko dituen etab.

Proposamen hau urtarriletik aurrera martxan egotea proposatzen dugu; beraz, hilabeteko epea dauka udalak zelan egingo duen azertu eta hori eguneratzeko.”

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak ez datoz bat honekin, haien ustez premiazkoa ez baita.

#### 5.4- Osoko bilkuren maiztasunaren aldaketa.

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

“Ez gatoz bat, legez, osoko bilkurak hiru hilabeterik behin izan daitezzen. Baliteke, hilabeteren bat eskasagoa izatea eta informazio batzordean hitz egin eta gero bilkurarik ez egitea erabakitzea denon artean. Baina gure ustez, inolaz ere ezin dugu onartu normaz horrela izatea. Hiru hilabete tarte luzeegia delako. Gainera, alkateak beti sinatuko ditu dekretuak eta guretzako oso garrantzitsua da horren berri izatea. Horrez gain, urriko osoko bilkuran onartutako bilkuren maiztasuna uztailean aho batez talde guztiok onartu genuena aldatzera dator.

Horregatik, osoko bilkurak berriz ere hileroko eta azken ostegunean, orain arteko moduan, egitea proposatzen dugu.”

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak abstenitu dira.

#### 5.5- Supermerkatua zegoen lokala.

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo

osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“Urriko osoko bilkuran gure talde politikoak udalarena den plazako lokala lehiaketara atera eta berriro ere zabaltzea proposatu genuen. Azkenean, aldeko lau boto eta kontrako beste lau egokeran alkatearen erabakiz atzera bota zen orduan gure proposamena. EAJ-PNVren esanetan aztertzen ari ziren lokal horren erabilera eta proposamenen baten zain geratu ginen.

Joan den asteko informazio batzorde batean, haurreskola berria eraikitzeke aukeren artean aurkeztu ziguten. Horren aurrean, gure desadostasuna adierazi ondoren berriro ere honi buruzko proposamena aurkeztea erabaki dugu arrazoi birengatik:

a.- EAE-ANVren ustez, plazako lokalak herritarrei zerbitzu bat emateko eta merkataritza sustatzeko izan behar du. Gaur egun, herrian ez daukagu oinarrizko zerbitzurik eta udalak bere gain hartu beharko luke hori bultzatzearen ardura.

b.- Bestalde gure talde politikoaren iritziz, haurreskola eskolaren eremuan kokatu behar da nahitaez; umeak euren artean harremandu eta gurasoentzako ere erosoagoa izan dadin. Gure ustez, haurreskola eskolaren harrobia da argi eta garbi eta horretarako udalak biak uztartzearen aldeko apustua egin behar du. Horrez gain, plazako lokala ez zaigu iruditzen aproposa denik ez ume ezta gurasoentzako ere. Horretarako plazaren zati bat itxi egin beharko genuke haurreskolako patio bihurtzeko.

Hori dela-eta, Gatikako udal batzan EAE-ANV taldeko bozeramaile naizen Jose Mari Markaidak honako urgentziatzko proposamena aurkezten dut osoko bilkuran eztabaidatu eta onartuak izan daitezen, bere osotasunean.

1.- Udalak lehiaketara aterako du supermerkatua zegoen lokala. Horretarako, behar diren tramiteak (baldintzen agiria, boletinean publikatu, ...) egingo ditu eta baldintzak

zehaztuko ditu. Baldintzak alderdi guztion artean erabakiko ditugu dagokion batzordean edo espreski deitutako bilera batean.

2.- Udalak informazio kanpaina bat zabalduko du herrian (buzoneoa, panela, ...) lokal hori lehiaketara aterako dela informatzeko. Horregaz batera, interesatuek proiektu bat aurkeztu eta dauzkan epeak eta zein modutara egingo den zehaztuko du.

3.- Udalak proiektuak jasoko ditu, aurrez finkatutako epean eta horiek aztertzeko epaimahaia osatuko du, alderdi guztietako ordezkariekin.

4.- Proiektuak aztertuko dira eta epaimahaiak baloratuko ditu. Lehiaketan nori esleitu edo adjudikatu zaion jakinaraziko da.

5.- Lokalaren zesioa nola egin aztertuko da aholkulari juridikoekaz eta berau prestatuko da.

6.- Hortik aurrera, legeak dioena jarraituz tramiteak egin eta lokala irekiko da.

**\*\* BALDINTZETAN ARGI GERATUKO DA GATIKARREK LEHENTASUN OSOA IZANGO DUTELA ETA ZEIN MOTATAKO ZERBITZUA SUSTATU NAHI DUGUN (gure ustez, elikagaien komertzioa izan behar du eta lehen plazak eskaintzen zizkigun zerbitzuak bildu ditzake: egunkariak, ogia, elikagaiak, ...)\*\***

Idazkariak esan du ikusi beharra dagoela norenak diren honi buruzko kompetentziak.

Jesús Maria Fullaondok esan du aurreko osoko bilkura batean onartu zela ikertzea eta itxarotea zer gerta ere.

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak ez datoz bat honekin, haien ustez beharrezkoa delako aldez aurretik ikertzea.

#### 5.6- Libero auzoan zabor biltegi jartzeko proposamenari buruz..

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute garrantzitsua izan arren, ez duela premia.

Gainera, haien ustez hurrengo osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“2007ko urriaren 31ko Deia egunkariko 2 eta 3. orrialdeetan irakurri ahal izan genuen Ur Partzuergoak 2008-2011rako aurreikusita daukala Butroiko errekarako zabor biltze sisteman 45 milioi euro inbertitzea. Obra hori Gatika, Jatabe, Laukiz, eta Mungiako auzo batzuentzako izango delarik.

Beste parrafo batean proiektua Gatikako Libero auzoan jarriko duten zabor biltegi edo depuradora batean oinarritzen dela aipatzen du artikuluak.

Gure ustez, argi geratu zen depuradora ezin zitekeela egin hasierako proiektuak zehazten zuen tokian eta horretarako egin zen bigarren bat.

Hori dela-eta, Gatikako udal batzan EAE-ANV taldeko bozeramaile naizen Jose Mari Markaidak honako urgentziarako proposamena aurkezten dut osoko bilkuran eztabaidatu eta onartua izan dadin.

1.- Deia egunkarian argitaratutakoa egia den ala oker bat den argitzeko behar diren telefono dei, bilerak, etab egin ditzala eskatzen diogu Gatikako alkateari.

2.- Horien ostean, bai oposizioko talde politikoei zein kaltetutako auzotar taldeari gertatutakoa azaltzea eskatzen diogu.

3.- Inolaz ere ez duela Libero auzoan, hasiera batean proiektatutako tokian depuradora emateko baimena emango.

4.- Depuradoran inguruan gertatzen den edozein aldaketa edo aurrerapausoen barri emango diela bai talde politiko guztiei zein auzokideei (eurek izendatutako ordezkarien bitartez).”

Jesús Maria Fullaondok esan du egunkarian agertu zenean ez zegoela honi buruzko informazioa, baina orain baduela batzartuta egon direlako eta azalduko dela beste alderdiei.

Guztiak ados daude baimena ez ematearekin, *EAJ-PNVkoek diote aztertu barik ezin dutela ados egon.*

#### 5.7- Saneamendu sarea.

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“Azkenaldian egunkarietan ere irakurri ahal izan ditugu saneamendu sareari buruzko kexak. Gure kezka nagusietako bat ere bada, ez baitugu ulertzen zelan kobratu ahal dan emoten ez dan zerbitzu bat. Gure ustez logikarik ez daukan arren, antza hori da Ur Partzuegoaren funtzionatzeko modua. Baina, jakin badakigu beste herri batzutan zerbitzu hori ez dagoen artean Ur Patzuegoak putzu septikoak utzitzuteko kamioiak bidaltzen dauzela.

Hori dela-eta, Gatikako udal batzan EAE-ANV taldeko bozeramaile naizen Jose Mari Markaidak honako urgentziazko proposamena aurkezten dut osoko bilkuran eztabaidatu eta onartuak izan daitezen.

1.- Alkateak Gatikako udalaren izenean ahaleginak egingo ditu hitzarmenaren modifikazio bat lortzeko. Horretarako, behar diren dei, bilerak, ... egingo ditu. Modifikazio horretan, beste herri batzuetan egiten den moduan, Gatican ere herritarrek putzua beteta dutenean deitu eta Ur Partzuergoak edo Gatikako udalak kamioa bidaliko du etxe horietara.

2.- Logikoa denez, putzurik ez daukatenei (baserri batzuk esaterako) ez diete zerbitzua kobratuko.

Honekin batera, salatu nahi dugu; EAJ-PNVk gobernatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzen iturria Gatikarentzat itxita eduki izan duelako ez dala egin orain arte saneamendu sare osorik Gatican. Horretarako, Foru Aldundiak erabili duen aitzakietako bat ganera, Ur Partzuergoan sartzea izen delarik.”

Jesús Maria Fullaondok esan du saneamendu sarea ez dagoela konponduta, inbertsioak ez batira egon.

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak ez datoz bat honekin.

#### 5.8- Maria Jesús Azkueri buruzko proposamenak.

Premiazko gaia denez, aldez aurretik premiari buruz bozkatu da.

EAE-ANVkoak eta EAKoak premiaren alde daude.

EAJ-PNVkoek uste dute ez duela premia. Gainera, haien ustez hurrengo

osoko bilkuran hitz egin ahal da honetaz.

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena:

“Denok gogoratuko duzuen moduan, BAKBEK elkarte kulturalak eta haren idazkaria den Larraitz Loiarre Azkuek eskaerarik egin gabe eta inolako zesiorik sinatu gabe udal polikiroldegian sabel-dantza ikastaroa ematen ari zela salatu genuen urriko osoko bilkuran. Hain zuzen ere, kultur zinegotziaren alaba denak, udalak publizitatatutako ikastaro bat bere kontura ematen ari zen eta ez zegoen inolako kontraturik tartean. Horrez gain, ikastaroak doakoak ez zirenez; irakaslea den Larraitzek negozio itzela lortu zuela Gatican salatu genuen. Nahiz eta, ez duen aurkezteko derrigorik; gaur egun, oraindik ez dugu ikusi diru hori berak kobratzen ez duela dioen faktura, kontu korrontetako estrakto edo antzekorik. Gainera, kultur zinegotzi andreak bere alabari ondo zetorkion egunean sabel-dantza ikastaroa eman ahal izateko; beste ikastaro guztiak, orain arte urteetan egin direnak, aldatu zituela ere salatu genuen.

Baina kultur zinegotzi andrearen ametsak ez zirelez hor akabetan, uztailean sortutako CEZAY creatividad e imaginación kultur elkarte aukeratu zuen Maria Jesusek pintura ikastaroa emateko. Honezkero, danok dakigun moduan elkarte horretako lehendakaria Maria Jesusen bigarren elkarte bateko (LIUKU deritzonaren) diruzaina da. Beraz, argi frogatu genuen Maria Jesusen eta Maria del Carmen Requejoren arteko harremana.

Gure salaketen ondotik, ez ohiko bilkura batean Maria Jesusek bere tejemaneje guztiak “argitzeko” edo azalpenak eman zizkigun.

Gatikako EAE-ANVren ustez, berak azaldutakoarekin oraindik ez dugu argitu zergatik eman zion bere alabari sabel dantza ikastaroa emateko baimena; inolako zesio edo azalpenik eman gabe udaletxean. Beste ikastaro guztiei kontratuak egin zitzaizkion arren, sabel dantzarekin bakarrik egin zen salbuespena. Zergatik?

Eta ez dugu azaldu zergatik kontratatu zuen bere elkarte bateko kidea pintura emateko, zergatik ez aurrekontu gehiago eskatu, eta batez ere zergatik lagundu falta zitzaion

guztia egiten. Oraindik, ez dugu ulertzen zergatik udaleko zinegotzi batek bilatu behar dion enpresa edo elkarte bati aseguruua. Zergatik hainbeste ahalegin?

Gure galderak ondiño erantzun ez baditu bere, honezkero ezta beharrezkoa guk ondo dakigulako.

- Maria Jesusek bere kargua erabili gure izan du bere etxeko eta lagunen mesederako eta ez hori bakarrik bere inguruko enegoizorako bere erabili du. Maria Jesusek udaletxean kargu bat edukitzeagatik daukan informazioa erabili du beran etxeko eta lagunen probetxureko.
- Egindakoa ikusita, Maria Jesus ez dela pertsona egokia udaleko lanak egiteko pentsatzen dugu. Kapaz ez bada interes pertsonalak eta udaleko lana banatzeko; udaletxe honetan ezin du ardurarik eduki.
- Gure ustez, lau hilabete udaletxean egonda Maria Jesusek egin duena kontuan edukita ezin du dituen ardurekin segitu. Argi eta garbi erakutsi duelako ez dabilela beharrezko herritarren interesak defendidutearren; behar egitera mugitzen duen gauza bakarra interes pertsonalak direla erakutsi digu.

Hori dela-eta, EAE-ANV taldeak Gatikako udalbatza honi honakoa eskatzen dio.

1.- Publikoki salatu dadila (udal baltzak) bilkura honetan Maria Jesus Azkue Goirigolzarri kultur zinegotziak egindakoa; bere kargua interes pertsonalerako erabili duelako herritar guztiok ordaintzen dugunaz aprobetxatuz eta daukan kargua eramateko gaitasunik ez daukala erakutsiz.

2.- Egindakoa arduragabekeria ikaragarria eta herritarrekiko zintzotasun falta delako; Gatikako udaleko alkateari uztailean Maria Jesus Azkue Goirigolzarri andreari eman zizkion kargu guztiak kentzea exijitzen dugu.

Honakoak dira egun Azkue andrearen karguak:

- Hezkuntza, kultura eta turismoa, euskara, emakumea eta gizarte ekintza arloaren arduraduna.
- Lehenengo alkate-ordea (teniente-alcalde).
- Udal diruzaina
- UEMAko ordezkoa.
- Gatikako Herri ikastetxeko eskola kontseiluko ordezkoa.
- Uribe-Butroiko zerbitzu-mankomunitateko ordezkoa.
- Ingurugiro, osasun eta kontsumo, toki agenda 21, gazteria eta kirol arloko informazio batzordeko arduradunaren ordezkoa.
- Obra eta zerbitzu, garraio eta lanbide arloko informazio batzordeko arduradunaren ordezkoa.
- Hirigintza, ekonomia, ogasuna eta diruzaintza arloko informazio batzordeko arduradunaren ordezkoa.
- Gatikako Herri Sustapenak-eko administrazio kontseiluko kidea”

Bozkatu eta onartu da, EAE-ANVkoak eta EAKoak alde daude. EAJ-PNVkoak ez datoz bat honekin, haien ustez premiazkoa ez baita.

Deitze Erkorekak esan du alkateak kontuan hartzeko zinegotzi gehienak alde daudela.

## **6. Eskabide eta galderak.**

### **6.1- Pintura ikastaroa**

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena EAE-ANV izenean:

“Gatikako udalak eskaintzen duen umeentzako pintura ikastaroa gaztelaniaz ematen ari dela salatzen dugu. Gure ustez, oso larria da udalak umeentzako

antolatzen dituen ikastaro bakarria gaztelaniaz ematea Gatika bezalako udal euskaldun baten. Are gehiago udala Udallerri Euskaldunen Mankomunitatean egonik.

Ez da batere logikoa euskara herrian zelan bultzatu jakin ezinik egotea eta era berean udalak berak ikastaroak gaztelaniaz ematea. Larriena gainera, ikastaro hori umeei zuzenduta egotea da, beraiek baitira hurrengo belaunaldia eta euskara mantentzeko gure esperantza.

Horregatik, Gatikako udaleko alkateari egoera hau aztertu eta behar diren erabakiak hartu ditzala eskatzen diogu. Gure ustez, ezin da datorren ikasturtera arte itxaron eta horretarako kontratua eten egin behar bada aldeko eta kontrako arrazoiak begiratu beharko dira. Baina inolaz ere ezin da dirua euskararen aurretik lehenetsi.

Beraz, honen inguruan udal gobernuak neurriak hartuko dituela espero dugu eta horren barri emoteko gure taldeak idatziz, udaleko irteera zigiluarekin eta 15 eguneko epean jaso nahi du.”

Idazkariak azaldu du legeak diola hurrengo osoko bilkuran azaltzeko aukera dagoela.

Deitze Erkoreka ados dago baina esan du idatziz egitea nahi duela.

### 6.2.- Garraio publikoak

EAE-ANV izenean Deitze Erkorekak esan du:

“Gatikako garraio publikoari buruz Deian argitaratutakoa argitzea eskatzen diogu herriko alkateari. Izan ere, artikulua horretan datorren urtetik aurrera Bizkaibusa pasatu dela iragartzen baitu. Benetan, tristea da herriko talde politikoak honetaz egunkarietan enteratu behar izatea. Eta ez dugu sinestuko udal gobernuak honi buruzko informaziorik ez daukala esatea. Jakin badakigulako gauza hauek ez dituela Foru Aldundiak berak bakarrik erabakitzen.

Beraz, bai orain zein datorren hilean dagokion batzordean honi buruz udalak daukan informazioa ematea eskatzen dugu. Hau da, zein ibilbide izango duen autobusak, zenbatero pasatuko den, zein negoziaziotan ari den Gatikako udala Aldundiarekin eta zer gertatuko den egungo Vigiola zerbitzuarekin.

Gainera, hori guztia idatziz eta udaleko irteera zigiluarekin jaso nahi dugu 15 eguneko epean”

Idazkariak azaldu du legeak diola hurrengo osoko bilkuran azaltzeko aukera dagoela.

Deitze Erkoreka ados dago baina esan du idatziz egitea nahi duela.

Gaiaz hitz egin ondoren, Jesús Maria Fullaondok esan du Garraio sailarekin batzarra izango dela eta zinegotziei emango diela informazioa.

### 6.3- Kiroldegia

Hona hemen Deitze Erkorekak esan duena EAE-ANV izenean:

“Joan den astean, kirol informazio batzordean herriko ume talde batek frontoia eskatu zuela asteburuetan eta giltza adinekoen egoitzako tabernan uzteko proposamena egin zutela azaldu zeniguten. Batzorde horretan egon ginenon artean proposamena ondo ikusi genuen eta herriko frontoia erabiltzeko zela argudiatu. Horren haritik beste gora behera batzuetaz hitz egin eta adostasunik lortu ez bagenuen ere (garbiketaren kontua); gure ustez argi geratu zen frontoia erabiltzeko baimena emango zitzaizela. Baina gure harridurarako ume horiei momentuz ezin zaiela giltzarik utzi esateko deitu zaie.

Ezin dugu ulertu zerk baldintzatu duen batzordean denok begi onez ikusi genuena. Horregatik gaur eskabide eta galderen atalean kontu hau argitu dezala eskatzen diogu alkateari.”

Jesús Maria Fullaondok esan du eskatu zutenei baimena eman ziela, baina ume batek egindako pintadak agertu zirenez, erabaki zela baimenik ez ematea, behin-behinean,

Guztiak bat datoz baimena ematearekin, baina dena den, honetaz hitz egingo dela hurrengo informazio batzordetan.

#### 6.4- Guztiontzat elkartea

EAE-ANV izenean Deitze Erkorekak esan du:

“Bestalde, joan den asteko ostiralean Deiak Guztiontzat elkarteari buruzko informazioa ez dugu batere ondo ikusten. Izan ere, elkarte horren elkartuteko lekua dena Iñaki Aginaga alkate zela zabaldu zen eta artikuluan kontrakorik esaten ez den arren, Jesus Mari Fullaondoren izena agertzen da.

Batetik, jakin nahi dugu prentsa ohar hau udaleko prentsa arduradunaren bitartez bidali den Deia. Horrela bada, salatu behar dugu udala berriro ere elkarte pribatuen publizitatea egiten ari dela eta gainera gobernuan dagoen alderdiaren aldeko lana egiten ari dela prentsa arduraduna. Ez dugu ahaztu behar prentsa arduraduna denok, herritar guztiok, ordaintzen dugula eta ez alderdi batek.

Bestetik, jakin gure dogu prentsa arduradun hori Deia egunkariak gure udaletxean daukan kazetari bat den ala benetako prentsa arduraduna den. Izan ere, gure udaleko albisteak Deian baino ez doguz aurkitzen. Gure ustez, Deiak gure udaletxearen jarraipena egin nahi badu berak ordaindu beharko du kazetaria eta ez herritar guztiek.

Barriz, pertsona horren lana udaleko barri zabaltzea baldin bada beste komunikabide batzuetara ere bidali beharko ditu albisteak; Deia ez baita inondik inora gehien irakurtzen den egunkaria.”

Azaldu da hor idatzi duena ez dela udalako prentsa arduraduna eta akats bat izan zela. Iñaki Aginaga azaldu du barkamena eskatu ziotela.

Jesús Maria Fullaondok esan du prentsa arduradunak egunkari guztietara bidali duela informazioa.

Maite Elorduik galdetu du zelan frogatzen duen guztietara bidali ohi duela. Jesús Maria Fullaondok erantzun dio ez dakiela eta galdetuko diola.

Arestian esanda dagoen moduan, 20.35ean osoko bilkura amaitu da.

Jesús M. Fullaondo Gatikako Alkatea	Chiara Camarón Gatikako behin-behineko idazkari- kontuhartzailea
--	--